



<b>EUSKARA BATZORDEA</b>	<b>COMISIÓN DE EUSKERA</b>
<b>DATA:</b> 2013-09-12	<b>FECHA:</b> 12-09-2013
<b>HASTEKO ORDUA:</b> 18:00 <b>BUKAERA ORDUA:</b> 20:00 <b>LEKUA:</b> UDALETXEKO BATZAR ARETOA	<b>HORA DE INICIO:</b> 18:00 <b>HORA DE FIN.:</b> 20:00 <b>LUGAR:</b> SALA DE JUNTAS DEL AYUNTAMIENTO
<b>AGERTU DIRENAK:</b>	<b>ASISTENTES:</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Maitane Maritorea (BILDUko zinegotzia / <i>Concejal de BILDU</i>)</li> <li>✗ M<sup>a</sup> Carmen Iribarren (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>)</li> <li>✗ M<sup>a</sup> Isabel Olave (UPNko zinegotzia / <i>Concejal de UPN</i>)</li> <li>✗ Maite Iturre (NABAI-2011ko zinegotzia / <i>Concejal de NABAI-2011</i>)</li> <li>✗ Estebe Apezetxe (Bai Euskarari) (<i>etorri ezina adierazi zuen / excusada la no asistencia</i>)</li> <li>✗ Elena Arretxea (AEK)</li> <li>✗ Alberto Atxa (Herri Eskolak) (<i>etorri ezina adierazi zuen / excusada la no asistencia</i>)</li> <li>✓ M<sup>a</sup> Carmen Irungarai (Xorroxin irratia)</li> <li>✓ Julen Mitxeltoarena</li> <li>✓ Arantxa Zelaia</li> <li>✓ Pello Iriarte</li> <li>✓ Paula Kasares (udaleko euskara teknikaria idazkaritako / <i>técnica municipal de euskera en labores de secretaria</i>)</li> </ul>	
<b>GAI-ZERRENDIA:</b>	<b>ORDEN DEL DÍA:</b>
<ol style="list-style-type: none"> <li>0. Hasi aitzinean Euskokultur fundazioaren aurkezpena</li> <li>1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala balegokio</li> <li>2. Topagunea elkartearen proposamenak</li> <li>3. <i>Baztango mintzoa erabiltzeko gida argitalpena</i></li> <li>4. UEMArekin batera prestatzen ari den Udalaren Euskararen erabilera plana</li> <li>5. Udalerriko merkataritza arloan euskara sustatzeko ekimenak</li> <li>6. Abenduaren 3ko, euskararen nazioarteko eguneko jarduera egitaraua.</li> <li>7. Galde-eskeak eta nork lekarkeena</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>0. <i>Punto preliminar: presentación de la fundación Euskokultur.</i></li> <li>1<sup>º</sup> <i>Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera.</i></li> <li>2<sup>º</sup> <i>Propuestas de la asociación Topagunea</i></li> <li>3<sup>º</sup> <i>La publicación Baztango mintzoa erabiltzeko gida (Guía para el uso del Euskara de Baztan)</i></li> <li>4<sup>º</sup> <i>Plan Municipal de Uso del Euskera que se está preparando con UEMA.</i></li> <li>5<sup>º</sup> <i>Iniciativas para fomentar el uso del euskera en el ámbito del comercio.</i></li> <li>6<sup>º</sup> <i>Programa de actos en torno a la celebración el 3 de diciembre del día internacional del euskera.</i></li> <li>7<sup>º</sup> <i>Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</i></li> </ol>
<b>ERABAKIAK:</b>	<b>ACUERDOS:</b>
<p><b>0. Hasi aitzinean Euskokultur fundazioaren aurkezpena</b> Batzordekideei aitzinetik jakinarazi zitzaizen bezala, Euskokultur fundazioko Aritz Ibañez Nafarroako Kultura Ondare ez-materialaren</p>	<p><b>0. Punto preliminar: presentación de Euskokultur</b> <i>Como se informó previamente a las y los miembros de la Comisión, Aritz Ibáñez de la fundación Euskokultur ha presentado el</i></p>



<p>artxibategiaren proiekturako Baztanen bildu den ahozko ondarearen aurkezpena egitera etorri da. Bertze udalerrietan egin izan den bezala material horren berri emateko ekitaldi publikoa egitea proposatu du, materiala jende aitzinean erakutsi ez ezik berriemaile aritu direnei eskerrak emateko ere.</p> <p>Euskokulturek material osoa, Baztango herri guzietako 66 berriemaile egindako bideo-audio grabaketak behar bezala antolaturik eta azterturik, Udalaren esku paratu du gaurgero. Ehundik goiti grabaketa ordu dira. Udalak, Euskokultur fundazioarekin batera material horren titularra baita, nahi duena egin dezake: webgunean sartu, DVD bat egin eta eskoletan partitu...</p> <p>Aurkezpen publikoa abenduaren 7an egingen da, arratsaldeko 5:00etan, Udaletxean. Kafea eta pasta batzuk, bai eta berriemaile bakoitzarendako bere lekukotasunen bideoa biltzen duen DVDa partitzeko aukera aztertuko da.</p>	<p><i>material de patrimonio oral recogido en Baztan dentro del proyecto Archivo de Patrimonio Inmaterial de Navarra y, tal y como se ha venido haciendo en otros municipios, ha propuesto hacer un acto de presentación pública no solo para presentar públicamente el material recogido sino también para agradecer la participación de los informantes.</i></p> <p><i>Euskokultur ya ha depositado todo el material, grabaciones de vídeo y audio debidamente ordenadas y analizadas realizadas a 66 informantes de todos los pueblos del Valle, en manos del Ayuntamiento. Se han realizado más de cien horas de grabación. El Ayuntamiento como titular de ese material junto con la fundación Euskokultur, puede disponer de él como desee: exponerlo en su web, publicarlo en DVDs y distribuirlo en los centros escolares...</i></p> <p><i>La presentación pública se realizará el 7 de diciembre, a las 5:00 de la tarde en la Casa Consistorial del Valle. Se valorará obsequiar a los asistentes con un café con pastas, así como repartir a los informantes una copia en DVD de su testimonio recogido.</i></p>
<p><b>1. Aitzineko Euskara batzordearen akta onartzea, hala badagokio</b> Akta onartu da.</p>	<p><b>1. Aprobación, en su caso, del acta de la última reunión de la Comisión de Euskera.</b> <i>Se aprueba el acta.</i></p>
<p><b>2. Topagunea elkartearen proposamenak</b> Maitane Maritorea zinegotziak Topagunea elkarteak eskaintzen dituen euskarazko ikuskizunen katalogoaren berri eman du. Sentsibilizazio saioak eta kultura emanaldiak daude aukeratzeko. Tarifa bereziak dira.</p> <p>Euskara zinegotziak aipatu katalogoa eta tailer baten gaineko informazioa euskalgintzako eragileei igorriko dizkio (akta honekin batera doaz).</p>	<p><b>2. Propuestas de la asociación Topagunea.</b> <i>La concejala Maitane Maritorea informa sobre el catálogo de actividades culturales en euskera que oferta la asociación Topagunea. Puede elegirse sesiones o talleres de sensibilización y actividades culturales que se ofertan con tarifas especiales.</i></p> <p><i>La concejala de euskera enviará a las asociaciones que conforman euskalgintza el citado catálogo así como información sobre un taller.</i></p>
<p><b>3. Baztango mintzoa erabiltzeko gida argitalpena</b> Maite Lakarrek apailatu duen testua prest dago inprimatzeko. Aurrekontuak eskaturik, lanaren diseinua, maketazioa eta 500 ale inprimatzeko lanak Kulturkariri esleitu zaizkio.</p>	<p><b>3. La publicación Baztango mintzoa erabiltzeko gida (Guía para el uso del Euskara de Baztan).</b> <i>El texto que ha preparado Maite Lakar está listo para su impresión. Una vez pedidos presupuestos, los trabajos de diseño,</i></p>



<p>Gauzak ongi, urriaren hasmentarako izanen dugu.</p> <p>Maitane Maritorenak argitalpena aurkezteko prentsaurrekoa egiteko asmoa jakinarazi du. Udalerriko ikastetxeetara, hedabideetara, euskaltegira, udal zerbitzu nahiz instalazioetara igorriko da eta Euskara batzordekideei ere partituko zaie.</p>	<p><i>maquetación e impresión de 500 ejemplares se le han adjudicado a Kulturkari. Las previsiones son que la publicación esté lista para comienzos de octubre.</i></p> <p><i>Maitane Maritorenena informa que la publicación se presentará públicamente en rueda de prensa y posteriormente se distribuirá a los centros escolares, medios de comunicación, euskaltegi, servicios e instalaciones municipales, así como a las y los miembros de la Comisión de Euskera.</i></p>
<p><b>4. UEMArekin batera prestatzen ari den Udalaren Euskararen erabilera plana</b></p> <p>Egunotan Miren Etxenike UEMAko udal planen arduraduna aritu da Baztango Udaletxean udal zerbitzu guztien arduradunekin solasean Udalaren hizkuntza jardueraren diagnostia ahal den xeheena egin eta Udalaren Erabilera Plana prestatzeko.</p> <p>Lan horrek Udalaren zerbitzu, jardura eta barne nahiz kanpo komunikazioetan euskara nola eta zenbat erabiltzen den zehazki ezagutzeko aukera emanen du, bai eta aitzina joateko hobetu beharrekoak identifikatzeko ere, betiere Ordenantza betetzea eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea xede dela.</p>	<p><b>4º Plan Municipal de Uso del Euskera que se está preparando con UEMA.</b></p> <p><i>Estos días Miren Etxenike, responsable de los planes municipales en UEMA está en la Casa Consistorial del Valle entrevistándose con los responsables de los servicios municipales a fin de poder realizar un diagnóstico lo más exhaustivo posible de cara a elaborar el Plan Municipal de Uso del Euskera.</i></p> <p><i>Ese trabajo posibilitará conocer detalladamente cuánto y cómo se utiliza el euskera en los servicios, actividades y comunicaciones, tanto internas como externas, del Ayuntamiento, así como identificar los aspectos a mejorar en el futuro, teniendo como objetivo el cumplimiento de la Ordenanza municipal del Euskera y la garantía de los derechos lingüísticos de la ciudadanía.</i></p>
<p><b>5. Udalerriko merkataritza arloan euskara sustatzeko ekimenak</b></p> <p>Maitane Maritorenak adierazi bezala, UEMAK eskaintzen dituen zerbitzu katalogoaren barnean, merkataritza arloari emanen zaie lehentasuna. Udalak UEMAK merkatarien esku doan paratzen dituen materialen berri emanen die bertako dendei gutun bidez. Euskara zerbitzutik denda eta halakoen zerrenda prestatuko da.</p>	<p><b>5º Iniciativas para fomentar el uso del euskera en el ámbito del comercio.</b></p> <p><i>Como informa Maitane Maritorenena, dentro del catálogo de servicios que oferta UEMA se le dará prioridad al sector del comercio. El ayuntamiento informará mediante una carta a las y los comerciantes locales de los materiales que UEMA pone a su disposición gratuitamente. Se confeccionará una lista desde el Servio de Euskera.</i></p>
<p><b>6. Abenduaren 3ko, euskararen nazioarteko eguneko jardura egitaraua</b></p> <p>Maitane Maritorenak proposamen bat mahaigaineratu du: euskarazko kultura jardura eta ikuskizun emanaldi batzuk lotu</p>	<p><b>6º Programa de actos en torno a la celebración el 3 de diciembre del día internacional del euskera.</b></p> <p><i>Maitane Maritorenena propone organizar una serie de eventos en euskera y preparar un</i></p>



<p>eta aste osoko ekitaldi programa eskaintzea. Honako hau da egitasmoa, Udaleko Berdintasun eta Euskara arloetatik eta Euskalgintzatik egindako ekarpenez osaturik:</p> <p><u>Azaroaren 29tik ondoko aste osoan:</u> Arizkuneko balkoian euskararen aldeko pankarta paratu.</p> <p><u>Azaroaren 29tik ondoko aste osoan:</u> Arizkunenean UEMAren gaineko erakusketa.</p> <p><u>Abenduak 1,</u> igandean, “Joko haut!” antzezlanaren Irurritako Gizarte bilgunean.</p> <p><u>Abenduak 2,</u> astelehenean, “Hizkuntza ekologia” gaia duen hitzaldia Arizkunenea kultur etxean.</p> <p><u>Abenduak 3,</u> asteartean, “Euskararen nazioarteko eguna” ospatzeko errebindikazio kale-jira Elizondon</p> <p><u>Abenduak 6,</u> ortziralean, Irurritako euskararen historia hurbila gaia duen hitzaldia Irurritako Jauregian.</p> <p><u>Abenduak 7,</u> larunbatean: Baztango ahozko ondarearen aurkezpen publikoa eta berriemaileei eskertzeko ekitaldia Udaletxean.</p> <p>Euskara zinegotziak “Euskararen astea” eta halako leloak erabili beharrean bertzeren bat proposatzeko egokitasuna azaldu du. Euskalgintza ados da eta hurrengo asteetan zehaztuz joanen da.</p>	<p><i>programa de toda una semana de actividades. Este es el proyecto, en el que colaborarán la sección de Igualdad y Euskera del Ayuntamiento y las asociaciones que conforman euskalgintza:</i></p> <p><i><u>Desde el 29 de noviembre y durante una semana:</u> se colocará en el balcón de Arizkunenea la pancarta a favor del euskera.</i></p> <p><i><u>Desde el 29 de noviembre y durante toda la semana:</u> la exposición sobre UEMA en Arizkunenea.</i></p> <p><i><u>1 de diciembre,</u> domingo: obra de teatro “Joko haut!” en el Centro Cívico de Irurita.</i></p> <p><i><u>2 de diciembre,</u> lunes: una conferencia sobre ecolingüismo en la casa de cultura Arizkunenea.</i></p> <p><i><u>3 de diciembre,</u> martes: pasacalles reivindicativo en Elizondo en conmemoración del día internacional del euskera.</i></p> <p><i><u>6 de diciembre,</u> viernes: conferencia sobre la historia reciente del euskera en Irurita, en Jauregia de Irurita.</i></p> <p><i><u>7 de diciembre,</u> sábado: presentación pública del patrimonio oral de Baztan y acto de agradecimiento a los informantes, en la Casa Consistorial.</i></p> <p><i>La concejala de euskera expone la conveniencia de evitar denominaciones como “Euskararen astea” (La semana del euskera) y proponer un lema nuevo. Las asociaciones de euskalgintza se muestran de acuerdo y lo irán definiendo en las próximas semanas.</i></p>
<p><b>7. Galde-eskeak eta nork leharkeena</b> Ez da deus aipatu.</p>	<p><b>7ª Ruegos, preguntas y otras aportaciones.</b> No ha habido</p>
<p><b>HURRENGO BILKURA</b> azaroaren 7an, ortzegunarekin, izanen da.</p>	<p><b>LA PRÓXIMA REUNIÓN</b> tendrá lugar el 7 de noviembre, jueves.</p>